

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Lilura estasi

MUSIKADOTOREAEGITENDA zurarekin, zurezko tresnekin. Baita txar askoa ere. Musika egiten du zurak. Ebanoa (*Diospyros* generokoak), kaobak (*Meliaceae* familiakoak), *Dalbergia* generoko zuhaitz jendea... Zur onenak ditugu musika tresnetan. Txistu beltzetan adibidez. Zailduz hezitako esku finduek leuntzen dute musika borobilduko duen zura. Ondo leuntzeko aukera ematen duen zura da onena instrumentuetarako. Zur hauek egur trinkoetatik datoz, uretara bota eta hondora joaten diren horietatik. Aipatutako *Dalbergia* generoko espezie batzuetako enborrek metro kuboko 1.250 kiloko pisua izan dezakete. Harrapazank! Urak berak baino %25 gehiago. Tokitan daude gure egur trinkoak, ale bakanen batzuk asko jota uraren 1.000 kilo/m³ paretsuko izan daitezkeen artea (*Quercus ilex*), ezpela (*Buxus sempervirens*), hagina (*Taxus baccata*), maaltza (*Pyrus* sp), artelataza (*Quercus suber*), gorostia (*Ilex aquifolium*)... eta musikagintzarako batik bat erabili izan dugun *Acer campestre* astigar arruntaren 600 inguru kiloak. Zur trinkoak beteagoak dira eta finago leuntzen dira, eta



Sasafren (*Sassafras* sp) hostoak.

leunean, nonbait, musikaria musikari, musika hobeto ontzen da, bikainagoa. Kirikoketa jotzaileen bati galde-tu beharko diot, edo genero ugariagoa den bertsio modernoagoko txalapartari- ren bati: dolareko patsolaren leunak musikaren borobilean zenbaterainoko garrantzia duen... Kirikoketa urte garai honetako estasiaren adierazle zaharrenetakoa dugu.

Dolareko sagardogintza lanak amaituta, sagar-jotzaileek etxeko larrainean, sagarra jo eta txikitzeko erabiltzen zuten sumilekin hura zanpatzeko patsola joaz dolareko lanen doloreak kirikoketaz eta kantuz goxatu eta dantzetan gozatzeraz ematen dira. Muztio gozoa eta lagunak gozo, elkarren liluran lotzen dira. Patsolaren haritzak (*Quercus* sp) sortutako estasia eta musika tresnetan erabiltzen hasi berria den Kanadako sasafra (*Sassafras* sp) zuhaitzaren egurrak sortutakoak, berdinak ote? Sasafratik lurrin gozoak sortzen dira eta mina kentzeko aproposa da. Bere olio da, estasia deitzen den drogaren oinarritzko MDMA (3,4-metilendioximetanfetamina) sortzeko gaia. Lilura estasi.



JAKOBA ERREKONDO

Ustel gozoa

Fruituen artean ezezagunenetakoa izango dugu mizpira, *Mespilus germanica*. Asiriarrak eta babiloniarrek ekoizten zuten eta handi dator, agidanean, ohitura. Ia fruitu guztiak bere espezieko edo gehienez ere bere generoko beste baten gainean txertatzen dira. Mizpira, aldiz, elorri zurriari (*Crataegus* spp.) txertatzen zaio. Bi generoen arteko txerto honek mizpirondoa nekez hazi eta etortzea dakar. Honexegatik, erdipurdi bizi delako oso emaile da, iraungo ote duenaren zalan-tzan badaezpada bera bezalakoak sortzeko hazi asko eman, fruitu asko, alegia. Batzuek izotzen ondoren biltzen dituzte, eta beste batzuek, geuk tarteko, usteltzen hasi denean jaten; fruituaren azido malikoa hartzitu eta alkohola bihurtzen hasi eta azukreak gora egin duenean.

Gaur bildu ditut lehenak eta hemendik aurrera eskuera izango ditugu. Gozatu.